

2022. Ordenantza fiskalak. Behin betiko onarpena 2021eko azaroaren 26an izandako Bermeoko Udaleko Osoko Bilkuran BAO 2021/12/15 139. zk.

HORNIDURA ZERBITZUAK USTIATZEN DITUZTEN ENPRESEK UDALERRIKO BIDE PUBLIKOETAKO ZORUAREN, ZORUPEAREN EDO LURGAINAREN ERABILERA PRIBATIBOAGATIK EDO APROBETXAMENTU BEREZIAGAITIK ORDAINDU BEHARREKO TASA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA FISKALA.

1. artikulua.—XEDAPEN OROKORRAK

1.-Udal honek, Tokiko Ogasunen 9/2005 Foru Arauaren 21. artikuluko 1 eta 4 ataletan ezarritakoarekin bat etorruta, hornidura zerbitzuak ustiatzen dituzten enpresei tasak ezartzen eta ordainarazten dizkio udalerriko bideetako zoruaren, zorupearen eta lurgainaren erabilera pribatiboagatik edo aprobetxamendu bereziagatik.

2.-Ondorio horietarako, hornidura zerbitzuak ustiatzen dituzten enpresatzat honako hauek joko dira:

- a) Energia elektrikoaren, uraren edo gasaren hornikuntzan diharduten enpresak.
- b) Herriar guztientzat telekomunikazio zerbitzuak ematen dituzten enpresak, beti ere osorik edo zati batez erabiltzen badituzte udalerriko bide publikoetako zorua, zorupea edo lurgaina, eta erabilera pribatiboa edo aprobetxamendu berezia eginez instalatutako telekomunikazio sare publikoak, sareen edo instalazioen titularra edozein izanda ere.
- c) Hornidura zerbitzuak ematen dituzten beste edozein enpresa, beti ere zerbitzuak emateko erabiltzen duen tutueria, hari eta gainerako instalazioek udalerriko zorua, lurgaina edo zorupea okupatzen badute.

3.-Artikulu honetan ezarritakoaren ondorioetarako, zerbitzuak banatzen eta merkaturatzen dituzten enpresak ere zerbitzuak ustiatzen dituzten enpresen multzoan sartuko dira.

2. artikulua

Ordenantza hau udal mugarte osoan aplikatuko da.

3. artikulua.—EGITATE EZARGARRIA

1.- Egitate ezargarria honakoa da: hornidura zerbitzuak ustiatzen dituzten enpresek udalerriko bide publikoetako zoruaren, zorupearen edo lurgainaren erabilera pribatiboa edo aprobetxamendu berezia egitea, zerbitzu horiek interes orokorrekoak badira, edo eragina badute udalerriko biztanle guztiengan edo gehiengan.

2.- Tasaren zenbatekoa ezartzeko araubide hau aurreko artikuluan aipatutako enpresa guztiei aplikatuko zaie, bai zerbitzuak egiteko erabiltzen dituzten sareen titular direnei, bai sareen titular ez izan arren sareak erabiltzeko, sareetan sartzeko edo haiekin konektatzeko eskubideen titular direnei.

3.- Sakeleko telefonoen zerbitzuak ez dira sartuko tasaren zenbatekoa ezartzeko araubide berezi honetan.

4.- Tasa hau bateragarria da udal eskumeneko zerbitzuak edo jarduerak egiteagatik ezar litezkeen beste tasa batzuekin, hornidura zerbitzuak ustiatzen dituzten enpresak haien subjektu pasibo izan behar direnean 5/1998 Foru Arauaren 23.1.b) artikuluan ezarritakoaren arabera. Tasa hau ordaintzen duenak ez du edukiko udalerriko bide publikoetako zoruaren, zorupearen edo lurgainaren erabilera pribatiboagatik edo aprobetxamendu bereziagatik ezarritako gainerako tasak ordaindu beharrik.

4. artikulua.—SUBJEKTU PASIBOA

1.- Subjektu pasiboak dira, zergadun gisa, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorren 34. artikuluan aipatutako pertsona fisiko eta juridikoak eta erakundeak, hornidura zerbitzuak ustiatzen dituzten enpresen titularrak izanez gero, beti ere zerbitzu horiek interes orokorrekoak badira edo udalerriko biztanle guztiengan edo gehienengan eragina badute, eta zerbitzua emateko udalerriko bide publikoetako zoruaren, zorupearen edo lurgainaren erabilera pribatiboa edo aprobetxamendu berezia egiten bada.

1.- Artikulu honetan ezarritakoaren ondorioetarako, zerbitzuak banatzen eta merkaturatzen dituzten enpresak ere zerbitzuak ustiatzen dituzten enpresen multzoan sartuko dira.

5. artikulua.—HOBARIAK

Salbuespenak, eta bestelako onura fiskalak, aplikatu beharreko xedapen orokorretan ezarritakoaren arabera emango dira.

6. artikulua.—OINARRI EZARGARRIA

1.- Tasaren oinarri ezargarria kalkulatzeko, hornidura zerbitzuak ustiatzen dituzten enpresek udal mugartean urtean egiten duten fakturaziotik ateratako sarrera gordinak hartuko dira kontuan.

2.- Sarrera gordinak izango dira enpresari egotzi ahal zaizkionak, udalerrian egindako zerbitzuen ordainez lortutakoak badira.

3.- Ez dira sarrera gordintzat joko zerbitzuen gaineko zeharkako zergak, ezta gainerakoen kontura kobratutako partidak edo kopuruak ere, hornidura zerbitzua ustiatzen duen enpresaren beraren sarrerak ez badira.

Era berean, ez dira sartuko fakturazioko sarrera gordinetan Ekonomia Ministerioaren Elektroenergia Ekoizteko Instalazioaren Administrazio Erregistroko 1. edo 2. atalean inskribatutako instalazioetan, araubide berezi honen arabera zerga-ordainketari lotuta dagoen energia sortzeko erabiliko den lehengaia hornitzeagatik jasotzen diren kopuruak.

4.- Zerbitzuak emateko besteren sareak erabiltzen dituzten enpresek euren fakturazioaren sarrera gordinetatik kenduko dituzte beste enpresa batzuei euren sareekin konektatzeagatik edo haietan sartzeagatik ordaindutako kopuruak. Halako sareen titular diren enpresek horregatik jasotako kopuruak fakturazioaren sarrera gordin moduan konputatu behar dituzte.

5.- Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren 112. artikuluan eta Bizkaiko Lurralde Historikoko Ikuskapenari buruzko Araudiaren 37. artikuluan ezarritakoari jarraituz, sareen titular diren enpresek udalari informazioa eman beharko diote, udalak eskatuz gero; sareetan sartzeagatik edo konektatzeagatik ordaintzen dieten enpresena, hain zuzen ere.

7. artikulua.—KUOTA

1.- **Tasaren kuota %1,5koa** izango da, eta udal mugartean urtean egindako fakturaziotik datozen sarrera gordinei aplikatuko zaie.

2.- Aprobetxamendu bereziak udalerriko jabari publikoko ondasunak suntsitzea edo narriatzea badakar berarekin, onuradunak haiek berreraikitze edo konpontzeko gastu osoa ordaindu beharko du eta zenbatekoa lanei ekin aurretik jarri beharko du. Horrezaz gainera tasa ordaindu beharko du.

Kalteak konponezinak badira, udalak kalte-ordaina jasoko du. Kalte- ordainaren zenbatekoa suntsitutako ondasunen balioari edo narriadurari dagokiona izango da. Udalak ezin ditu barkatu idatz- zati honetan adierazitako kalte-ordain eta itzulketarik, ez osorik, ez zatirik.

8. artikulua.—SORTZAPENA ETA ZERGALDIA

1.- Hornidura zerbitzuak ustiatzen dituzten enpresek udalerriko bide publikoetako zoruaren, zorupearen edo lurgainaren erabilera pribatiboagatik edo aprobetxamendu bereziagatik ordaindu beharreko tasa aprobetxamendu berezia hasten denean sortuko da lehenengoz, eta geroztik urtero sortuko da, urtarrilaren 1ean.

2.- Subjektu pasiboari egotzi ezin zaizkion arrazoiengatik jabari publikoaren aprobetxamendua ezin bada baliatu edo garatu, tasaren zenbatekoa itzuli egingo da.

VIII.- LIKIDAZIOA ETA DIRU- SARRERA

9. artikulua

- 1.- Hornidura-mota bakoitzeko autolikidazio- araubidea ezartzen da.
- 2.- Hiru hilean behin, hiruhileko naturalaren lehen hamabostaldian, aurreko hiruhilekoko diru-sarrera gordinen aitorpena aurkeztu beharko zaio udalari autolikidazioarekin batera. Aitorpen horrekin batera, udalerrian egindako fakturazioa egiaztatzen duten agiriak aurkeztu beharko dira, bai eta udal-administrazioak kasu bakoitzean eskatzen duena ere.

IX.- TASAREN KUDEAKETA

10. artikulua

- 1.- Udalak adierazitako epean autolikidazioak aurkeztu ez dituzten subjektu pasiboak aurkituko balitu, interesdunei autolikidazioa egiteko aginduko die, eragindako zerga arau-hausteei eta, hala badagokio, sortzen diren zigorrei kalterik egin gabe.
- 2.- Autolikidazioak artikulua honetan ezarritako epearen ondoren aurkeztuz gero, epez kanpoko errekarquak eskatuko dira.
- 3.- Nolanahi ere, ofizioz espedientea ireki ahal izango du udal administrazioak bere esku dagoen informazioarekin, dagokion behin-behineko, osagarri edo behin betiko likidazioa igorrita, ordaintzeko epeak eta jar daitezkeen errekurtsioak zeintzuk diren adierazita, aplikatu daitezkeen zigorrak eta arau-hausteen kalte barik.

11. artikulua

Zergen arloko arau-hausteak, hauen sailkapena eta dagozkien zehapenak direla eta, Zergei buruzko Foru Arau Orokorrean eta Ordenantza Fiskal Orokorrean xedatutakoa beteko da.